



Andoaingo Udala



**‘SECUNDINO ETXEBERRIA:
ARGAZKILARIAREN SENTIKORTASUNA’
Erakusketaren inaugurazioa**

Andoainen, 23-11-20.- Datorren asteazkenean, azaroak 22an inauguratuko da Secundino Etxeberria Fernández (Andoain, 1894-1970), Andoainen profesionalki argazkigintzari heldu zion lehenengo argazkilariari buruzko erakusketa, “Argazkilariaren sentikortasuna” izenburupean.

Gure herriko aski ezaguna eta emankorra den familia baten partaide, Secundino Etxeberria sentsibilitate artistiko handiko pertsona genuen, eta Andoaingo bizitza kulturean partehartzaile sutsua izan zen, batez ere antzerki arloan. Sentsibilitate hori argi azaltzen da argazkiak egiteko moduan. Bere irudiak intimistak dira, eta are nabarmenagoa azaltzen da hurrei egindako argazkietan. Ahaztu ezinak gertatzen zaizkigu bere familia kideei hartutako irudiak.

Bere senideei esker, bere argazkiak eskuzabaltasunez utzi dizkigutelako antolatu ahal izan dugu erakusketa hau. Era berean, eta Udal Artxiboak egindako deiari erantzunez, zenbait andoaindarrek ere ekarri dituzte etxean zituzten Etxeberriaren argazkiak, eta horrela, erakusketan azaltzeaz gain, Udal Artxiboko Fototekaren parte izango den Secundino Etxeberriaren Funtsa elikatu dute. Guztiei gure esker ona adierazi nahi genieke.